

## “2019ko sanpedruak” ARGAZKI LEHIAKETA

### OINARRIAK

#### 1.- PARTE-HARTZAILEAK

Nahi duenak parte hartu ahal izango du, Eskoriatzan erroldatuta egon edo ez.

#### 2.- GAIAK

Eskoriatzako 2019ko San Pedro jaiei buruzko argazkiak izango dira..

#### 3.- ARGAZKIAK AURKEZTEA

Parte-hartzaile bakoitzak gehienez bost argazki aurkeztu ahal izango ditu. Argazkiak emailaz aurkeztu beharko dira helbide honetan: [kultura@eskoriatza.eus](mailto:kultura@eskoriatza.eus)

Mezua bidaltzerakoan Gaia: “Argazki Lehiaketa” idatzi beharko da, artxiboa identifikatzeko.

Mezuan, gainera, honako informazio hau erantsi beharko da:

1. Lanaren izenburua.
2. Argazkilariaren izen-abizenak.
3. Harremanetarako telefono zenbakia.

Eskoriatzako 2019ko San Pedro jaietakoa ez den argazkirik EZ DA onartuko.

Argazkiaren jabetza intelektualaren eskubide guztiak lehiaketara aurkeztu den pertsonarenak bakarrik izan beharko dira, hala ez bada ez da lehiaketarako onartuko.

onartuko argazkirik argazkiaren jabetza intelektualaren eskubide guztiak ez badira lehiaketara aurkeztu den pertsonarenak berarenak bakar-bakarrik.

#### 4.- ZEHAZTASUN TEKNIKOAK

Argazkiak euskarri digitalean, jpg fitxategan, aurkeztu beharko dira, eta neurria gehienez 5 MB-koa izango da.

Argazkiek erreproduzitzeko eta erakusteko behar besteko kalitatea izan beharko dute.

#### 5.- ARGAZKIEN AUKERAKETA

Jasotako argazkiak Eskoriatzako webgunean egongo dira erakusgai.

Argazkiak bozkatzeko aukera emango da webgune horretan eta herritarrek argazki bakarra eta behin bakarrik bozkatu ahal izango dute.

Webgunean boto gehien jaso dituzten 20 argazkiak izango dira epaimahaiari aurkeztuko zaizkionak, hark irabazlea aukera dezan.

#### 6.- EGUTEGIA

Argazkiak aurkezteko azkeneko eguna 2019ko uztailaren 10a izango da, 12:00etara arte. Ez da onartuko ostean aurkeztutako argazkirik.

#### 7.- SARIA

Hiru sari egongo dira: 1.saria 150 euro. 2.saria 100€ eta 3. saria: 50€

Sariak eman gabe gera daitezke, epaileen iritziz argazkiek behar besteko kalitaterik ez izateagatik, oinarriak ez betetzeagatik edo oinarrietako gaiari buruzkoak ez izateagatik.



#### **8.- JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK**

Saritutako argazkiak erabiltzeko, gizarteratzeko, erakusteko, jendaurrean izateko, zabaltzeko eta erreproduzitzeko eskubideak Eskoriatzako Udalarenak izango dira.

Eskoriatzako Udalak doan erabili edo zabaldu ahal izango ditu irudi irabazleak hedabideetan lehiaketa bera sustatzeko edo jaiekin zerikusirik duen beste edozertarako.

#### **9.- DATUEN BABESA**

Lehiaketako parte-hartzaileek onartu egin behar dute, eta baimena eman, Eskoriatzako Jai Batzordeak erabili ditzan lehiaketan parte hartzeko emandako datu pertsonalak; lehiaketa garatzeko erabiliko dituzte datuak, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoaren arabera. Izena emateko aurkeztu beharreko datu pertsonalak derrigorrez eman behar dira, lehiaketa egin ahal izateko. Parte-hartzaileek ziurtatu behar dute ez direla Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoan babesturiko eskubideak urratuko, ateratzen dutenen argazkietan ageri diran pertsonen dagokionez.

#### **10.- OINARRIEN ONARPENA**

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak onartu beharra dakar.

#### **11.- EPAILEAK**

Kultura batzordeko kideak izango dira epaimahaikideak.

#### **12.- HARREMANETAN JARTZEKO ETA ERREKLAMAZIORARAKO**

Parte hartzaileek [kultura@eskoriatza.eus](mailto:kultura@eskoriatza.eus) helbidea erabili ahal izango dute lehiaketa antolatu duen Kultura Sailarekin harremanetan jartzeko, edozein zalantza argitzeko edo erreklamazioak aurkezteko.